



BAZTANGO UDALA
AYUNTAMIENTO DEL NOBLE VALLE Y UNIVERSIDAD DE BAZTAN

2017ko IRAILAREN 18ko EZOHIKO ETA PREMIAZKO OSOKO BILKURA
SESIÓN PLENARIA EXTRAORDINARIA Y URGENTE DE 18 DE SEPTIEMBRE DE 2017

Baztango Udaletxeko Bilkura Aretoan, 2017ko irailaren 18an, 8:00etan, Baztango Udala Osoko Bilkuran bildu da ezohiko eta premiazko bileran. Joseba Otondo Bikondoa alkate jauna buru dela, honako zinegotziak etorri dira: Mikel Ortega Arraztoa, Juan Cruz Iriarte Bañez eta Maite J. Iturre Llano EH-BILDU taldekoak; Begonia Sanzberro Iturriria, Maria Carmen Iribarren Iribarren, Maria Isabel Olave Ballarena eta Jose Javier Aguirre Azcarraga UPN taldekoak; Ruben Ciganda Sanz eta Joseba Moreno Videgain GEROA BAI taldekoak; Florentino Gofñi Tellechea eta Iñigo Iturralde Eliceche BAZTANGO EZKERRA taldekoak; Alejandro Martin Ibarra BAZTAN AUZOLANEAN taldekoa.

Idazkari lanetan Iulen Urbiola Loiarte aritu da.

Alkatearen aginduz bilkura hasi da.

1.- DEIALDIA PREMIAZKOA IZATEA BERRESTEA.

Nafarroako Toki Entitateko 6/1990 Foru Legearen 78.1 artikuluari eta Toki Entitateen Antolamenduaren, Funtzionamenduaren eta Araubide Juridikoaren gaineko Erregelamendua ezartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 79 artikuluari jarraituz, Udaltzak deialdiaren premiazko izaera aho batez berresten du.

2. "AMAIURKO TXISKEÑAKOITURRIKO HODIA". EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA FINANTZA PLANAREN ONESPENA.

2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak eskatzen du Toki Administrazio Zuzendaritza Nagusiak Toki Inbertsioen Planean sartzen ahal diren inbertsioak onartzen dituzten Ebazpenak argitaratu eta 4 hilabeteko epean toki entitateek exekuzio proiektua eta egin beharreko finantza plana aurkeztu beharko dituztela.

En la Sala de Sesiones del Ayuntamiento del Valle de Baztan, siendo las 8:00 horas del día 18 de septiembre de 2017, se reúne, en sesión extraordinaria y urgente el Pleno Municipal, presidido por el alcalde Joseba Otondo Bikondoa y con la asistencia de los siguientes concejales: Mikel Ortega Arraztoa, Juan Cruz Iriarte Bañez y Maite J. Iturre Llano por el grupo EH-BILDU; Begonia Sanzberro Iturriria, Maria Carmen Iribarren Iribarren, Maria Isabel Olave Ballarena y José Javier Aguirre Azcarraga por el grupo UPN; Rubén Ciganda Sanz y Joseba Moreno Videgain por el grupo GEROA BAI; Florentino Goñi Tellechea, e Iñigo Iturralde Eliceche por el grupo BAZTANGO EZKERRA; Alejandro Martín Ibarra, por el grupo BAZTAN AUZOLANEAN.

Actúa como secretario Iulen Urbiola Loiarte.

El alcalde da comienzo a la sesión.

1.- RATIFICACIÓN DE LA URGENCIA DE LA CONVOCATORIA.

En virtud de lo establecido en el artículo 78.1 de la Ley Foral 6/1990, de 2 de junio, de la Administración Local de Navarra y el artículo 79 del Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de organización, funcionamiento y régimen jurídico de las Entidades locales, por unanimidad se ratifica el carácter urgente de la convocatoria.

2.- "CONDUCCIÓN TXISKEÑAKOITURRI DE AMAIUR". APROBACIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN Y DEL PLAN FINANCIERO.

La Ley Foral 18/2016, de 13 de diciembre, reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017-2019 exige que en la tramitación de las ayudas a las entidades locales, en un plazo de 4 meses a partir de la publicación de las resoluciones de la Dirección General de Administración Local que aprueban las relaciones de inversiones incluidas en el Plan de Inversiones Locales, las entidades locales aprueben en el Pleno el proyecto de ejecución y el plan financiero de la obra a ejecutar.

Ikusirik Toki Administrazioko zuzendari nagusiak maiatzaren 12an emandako 195/2017 Ebazpenaren bidez 2017/2019 Toki Inbertsioen Planean, Uraren goi hornidurako inbertsioen programak” izeneko atalaren barnean, sartzen ahal diren inbertsioen zerrendak onesten direla eta horien artean “Amaiurko Txiskeñakoiturriko hodia” obra dagoela eta 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen 18/2016 Foru Legearen agindua betez, **Udalbatzak aho-batez erabaki du:**

1.- “Amaiurko Txiskeñakoiturriko hodia” obraren **exekuzio proiektua onartzea**. Proiektua 2017-2019 Toki Inbertsioen Planaren barne dago “uraren goi hornidurako inbertsioen programak” izeneko atalean. Proiektua saio honi dagokion espedientean dago. Egilea: Juan Carlos Ovalle Cortisoz, bideetako ingeniaria; data: 2017ko iraila.

2.- “Amaiurko Txiskeñakoiturriko hodia” obraren **finantza-plana onartzea**. Obra 2017-2019 Toki Inbertsioen Planaren barne dago, “uraren goi hornidurako inbertsioen programak” izeneko atalean. Halaber finantza-plana saio honi dagokion espedientean dago.

3.- Akordio hau Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiari **helaraztea**, jakinaren gainean izateko eta ondorioetarako.

3.- "IRURITAKO KONPONBIDEA (4. FASEA). HODI NAGUSIKO ERDIKO TARTEA BERRITZEA". EXEKUZIO PROIEKTUAREN ETA FINANTZA PLANAREN ONESPENA.

2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen Abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legeak eskatzen du Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak Toki Inbertsioen Planean sartzen ahal diren inbertsioak onartzen dituzten Ebazpenak argitaratu eta 4 hilabeteko epean toki entitateek exekuzio proiektua eta egin beharreko finantza plana aurkeztu beharko dituztela.

Ikusirik Toki Administrazioko zuzendari nagusiak maiatzaren 12an emandako 195/2017 Ebazpenaren bidez 2017/2019 Toki Inbertsioen Planean, Uraren goi hornidurako inbertsioen programak” izeneko atalaren barnean, sartzen ahal diren inbertsioen zerrendak onesten direla eta horien artean “Iruritako konponbidea (4. fasea). Hodi nagusiko erdiko tartea berritzea” obra

Habiéndose incluido la obra “conducción Txiskeñakoiturri de Amaiur” en la Resolución 195/2017, de 12 de mayo, del Director General de Administración Local, por la que se aprueban las relaciones de inversiones susceptibles de ser incluidas en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, dentro del apartado denominado Programas de Inversiones de abastecimiento de agua en alta y en cumplimiento del mandato de la Ley Foral 18/2016 reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017-2019, el Pleno por unanimidad acuerda:

1.- *Aprobar el proyecto de ejecución de la obra “conducción Txiskeñakoiturri de Amaiur” incluida en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, dentro del apartado denominado Programas de Inversiones de abastecimiento de agua en alta y adjunto al expediente de la presente sesión. Autor: Juan Carlos Ovalle Cortisoz, Ingeniero de Caminos; fecha: septiembre de 2017.*

2.- *Aprobar el plan financiero de la obra “conducción Txiskeñakoiturri de Amaiur” incluida en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, dentro del apartado denominado Programas de Inversiones de abastecimiento de agua en alta y adjunto al expediente de la presente sesión.*

3.- *Notificar el presente acuerdo a la Dirección General de Administración Local del Gobierno de Navarra, para su conocimiento y efectos.*

3.- "SOLUCIÓN IRURITA (4ª FASE). RENOVACIÓN TRAMO INTERMEDIO CONDUCCIÓN GENERAL". APROBACIÓN DEL PROYECTO DE EJECUCIÓN Y DEL PLAN FINANCIERO.

La Ley Foral 18/2016, de 13 de diciembre, reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017-2019 exige que en la tramitación de las ayudas a las entidades locales, en un plazo de 4 meses a partir de la publicación de las resoluciones de la Dirección General de Administración Local que aprueban las relaciones de inversiones incluidas en el Plan de Inversiones Locales, las entidades locales aprueben en el Pleno el proyecto de ejecución y el plan financiero de la obra a ejecutar.

Habiéndose incluido la obra “Solución Irurita (4ª fase). Renovación tramo intermedio conducción general” en la Resolución 195/2017, de 12 de mayo, del Director General de Administración Local, por la que se aprueban las relaciones de inversiones susceptibles de ser incluidas en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, dentro del



dagoela eta 2017-2019 aldirako toki inbertsioen plana arautzen duen 18/2016 Foru Legearen agindua betez, **Udalbatzak aho-batez erabaki du:**

1.- "Iruritako konponbidea (4. fasea). Hodi nagusiko erdiko tartea berritzea" obraren **exekuzio proiektua onartzea**. Proiektua 2017-2019 Toki Inbertsioen Planaren barne dago "uraren goi hornidurako inbertsioen programak" izeneko atalean. Proiektua saio honi dagokion espedientean dago. Egilea: Juan Carlos Ovalle Cortissoz, bideetako ingeniaria; data: 2017ko iraila.

2.- "Iruritako konponbidea (4. fasea). Hodi nagusiko erdiko tartea berritzea" obraren **finantza-plana onartzea**. Obra 2017-2019 Toki Inbertsioen Planaren barne dago, "uraren goi hornidurako inbertsioen programak" izeneko atalean. Halaber finantza-plana saio honi dagokion espedientean dago.

3.- Akordio hau Nafarroako Gobernuko Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiari **helaraztea**, jakinaren gainean izateko eta ondorioetarako.

4.- LEKAROZKO HERRIAK EGINDAKO ESKAERA (4771/2017 sarrera zk.)

Mattari Plaza Zugarramurdik, Lekarozko alkateak, herriaren izenean 2017/09/05ean idatzia erregistratu du honakoak azalduz: "abuztuaren 10ean Nafarroako Aldizkari ofizialean Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak abuztuaren lehen emandako 373E/2017 Ebazpena argitaratu zen, Lekarozko Aroztegiko jauregiaren inguruko turismo, hotel, kirol eta egoitza eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko AR-1eko Birzatiketa Proiektua, eremuko Konpentsazio Batzordeak sustatua, behin betiko onesten duena. Ebazpen horretan Nafarroako Gobernuak Miren Meoki Plazak, Lekarozko zinpeko-alkate ohiak, Lekarozko herriaren izenean aurkeztutako alegazioa ezesten du, Lekarozko herriari S. Martzial ermitaren jabetza ez onartuz (dokumentazio ezberdina atxikitzen du jabegoa Lekarozko herriarena dela babesteko).

Guzti honengatik Baztango Udalari eskatzen dio Lekarozko herriaren interesak defenda ditzala eta ezarritako epean Nafarroako Gobernuaren aurrean

apartado denominado Programas de Inversiones de abastecimiento de agua en alta y en cumplimiento del mandato de la Ley Foral 18/2016 reguladora del Plan de Inversiones Locales 2017-2019 el Pleno por unanimidad acuerda:

1.- *Aprobar el proyecto de ejecución de la obra "solución Irurita (4ª fase). Renovación tramo intermedio conducción general", incluida en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, dentro del apartado denominado Programas de Inversiones de abastecimiento de agua en alta y adjunto al expediente de la presente sesión. Autor: Juan Carlos Ovalle Cortissoz, Ingeniero de Caminos; fecha: septiembre de 2017.*



2.- *Aprobar el plan financiero de la obra "solución Irurita (4ª fase). Renovación tramo intermedio conducción general", incluida en el Plan de Inversiones Locales 2017-2019, dentro del apartado denominado Programas de Inversiones de abastecimiento de agua en alta y adjunto al expediente de la presente sesión.*

3.- *Notificar el presente acuerdo a la Dirección General de Administración Local del Gobierno de Navarra, para su conocimiento y efectos.*

4.- SOLICITUD DEL PUEBLO DE LEKAROZ (Registro de entrada nº 4771/2017).

Con fecha de 5/09/2017 Mattari Plaza Zugarramurdi, alcalde del Pueblo de Lekaroz y en representación de éste ha registrado un escrito en el que expone: "que el día 10 de agosto se publicó en el Boletín Oficial de Navarra la Resolución 373E/2017, de 1 de agosto, de la Directora General de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se aprueba definitivamente el Proyecto de Reparcelación del AR-1 del Plan Sectorial de Incidencia Supramunicipal del área turística, hotelera, deportiva y residencial del entorno del "Palacio de Arozteguia" en Lekaroz, promovido por la Junta de Compensación del área. En la citada Resolución las alegaciones presentadas en nombre del pueblo de Lekaroz por la anterior alcaldesa de Lekaroz, Miren Meoki, han sido desestimadas por el Gobierno de Navarra, al no reconocer la propiedad de la ermita de S. Marcial al pueblo de Lekaroz (adjunta documentación diversa en la que sustenta la propiedad de la ermita y actos de disposición sobre la misma por parte del Pueblo de Lekaroz).

Por todo ello, solicita al Ayuntamiento de Baztan que defienda los intereses del pueblo de Lekaroz y haga para ello requerimiento previo al Gobierno



aurretiko errekerimendua aurkeztea. Halaber Udalarari eskatzen dio Nafarroako Gobernuak berriro eskaera ezezten badu, gure interesak defendatzearen 373E/2017 Ebazpenaren kontra errekurtsoa aurkez dezala”.

Rubén Ciganda, Geroa Bai: Emandako informazioa aztertu dugu eta kontra emanen dugubotoa, guk ulertzen baitugu titularitatea auzibidezibilean moldatzen dela. Gainera aipatu behar da Udala ez dela joaten Aroztegia Jauregiaren Konpentsazio Batzordera, eta hau hantxe moldatzen ahal zen. Bere garaian batzorde bat sortzea erabaki zen, Aroztegiako informazioa kudeatzeko; batzordea lehenbailehen biltzeko eskatzen dugu.

Joseba Otondo, alkatea: Nafarroako Gobernuari eskatu zitzaion bere ordezkariak izendatzeko, ez ditu izendatu. “Junta de Compensación” batek inguru guzi bat gestionatzen duen entitate bat da, eta “Junta de Compensación” hori pantomima bat da. Hor erdia gehi bat duenak dena agintzen du eta gu ez goaz inora denbora alferrik pasatzera. Kendu dizkigute hirigintzako konpetentziak, Udalak egin behar dituen moldaketa katastralak Nafarroako Gobernuak onartu ditu. Lekarozko herriak erraten duena da puntu horretan birzatiketa plana gaizki dagoela. Errekerimendu hau aurkeztuta Nafarroako Gobernuak aukera bikaina du zuzentzeko, bertzenaz egoera batzuk kontsolidatzen dira eta ez badira bere momentuan zuzentzen “defaktozko” egoerak sortzen ahal dira. Nafarroako Gobernuaren ardura da hori zuzen egitea. Bertzelakoa da auzibide zibil batean titulartasunaren gaia, hor Lekarozko herriak ikusi beharko du zer egiten duen.

Mikel Ortega, EH-Bildu: Orain konpontzea nahiko erreza da, nik uste epaitegietara joatea saihestu behar dela. Behinik behin puntu hori zalantzaszkoa jartzea.

Alejandro Martín, Baztan Auzolanean: Pentsatzen nuen Lekarozko herriaren erreklamazio bat argitzera nentorrela San Martzial ermitaren titularitateari buruz. Erreklamazioak badu oinarria, eta Udalak horixe egin behar dauka nahitaez, ondasun komunalen kudeatzailea baita. Eta orain, hara, ez du inport titularitateak, baizik eta alde zuzeneko errekerimenduak, titularitatea erreklamatzeko bitarteko gisa. Hirigintza kudeaketarako erregelamenduaren 103. artikulua 4. atala irakurriko dut... Titularitatea erreklamatu nahi badut, prozedura zibila da, eta bertzeak ez du deus ikusterik honekin. Aldez

de Navarra dentro del plazo estipulado para ello. Así mismo solicita al Ayuntamiento que en caso de denegación por parte del Gobierno de Navarra, defienda nuestros intereses por la vía judicial interponiendo recurso contra la Resolución 373E/2017”.

Rubén Ciganda, Geroa Bai: Hemos analizado la información aportada y vamos a votar en contra por entender que la titularidad se resuelve en vía civil. Además señalar que el Ayuntamiento no asiste a la Junta de Compensación del Palacio de Aroztegia y esto se podía haber resuelto ahí. En su día se decidió crear una comisión para gestionar la información de Aroztegia, solicitamos que se convoque lo antes posible.

Joseba Otondo, alcalde: Se solicitó al Gobierno de Navarra que nombrara a sus representantes y no lo ha hecho. La Junta de Compensación es una entidad que gestiona todo el entorno de la reparcelación y la Junta de Compensación es una pantomima. Quien tiene la mitad más uno domina todo y nosotros no vamos a ningún sitio a perder el tiempo. Nos han quitado las competencias de urbanismo, el Gobierno de Navarra ha aprobado las modificaciones catastrales que le corresponden al Ayuntamiento. Lo que dice el pueblo de Lekaroz es que el proyecto de reparcelación está mal en este punto. Presentando el requerimiento el Gobierno de Navarra tiene una excelente oportunidad de corregirlo, si no unas situaciones se consolidan y si no se corrigen en su momento pueden surgir situaciones de facto. Es responsabilidad del Gobierno de Navarra hacerlo de la manera correcta. Otra cosa es el tema de la titularidad por vía civil; ahí el pueblo de Lekaroz tendrá que ver qué hacer.

Mikel Ortega, EH-Bildu: Ahora es bastante fácil arreglarlo y yo creo que hay que evitar ir a los tribunales. Por lo menos ponerlo en duda.

Alejandro Martín, Baztan Auzolanean: Pensaba que venía a dilucidar una reclamación del Pueblo de Lekaroz sobre la titularidad de la ermita de San Marcial. La reclamación tiene fundamento y el Ayuntamiento como gestor de los bienes comunales tiene la obligación de hacerlo. Resulta que ahora no importa la titularidad sino el requerimiento previo como medio de reclamar la titularidad. Leo el apartado 4 del artículo 103 del reglamento de gestión urbanística... Si quiero reclamar la titularidad el procedimiento es el civil y lo otro no tiene nada que ver con esto. En el tema del requerimiento previo mi voto es negativo,

aitzineko errekerimenduaren gaian nire botoa kontrakoa da; erreklamazioaren gaian, berriz, iduri duenez kasu honetan ez dela aurreikusten, hurrengo osoko bilkuran ermitaren titularitatearen erreklamazio bat aurkeztu edo babestuko dut.

Joseba Otondo, alkatea: Ermita ez da dudoso, eman zaio bertze parteari eta "de facto"ko egoera bat sortzen da. Orain dira bi gauza aldi berean, erreklamazioa hori dudoso dela eta bertze aldetik auzibide zibiletan titulartasuna defenditzea. Titulartasuna bakarrik defenditzea maingu gelditzen da.

Begoña Sanzberro, UPN: Bat nator Alejandroren argudioarekin. Nafarroako Gobernuak jarraera bera izanen du eta mamia auzibide zibilean moldatu behar da.

Joseba Otondo, alkatea: Auzibide zibilera jo beharra da, zalantzarik gabe, baina gure ardura da bertze bide honetatik egitea; errekerimenduari atea ixtea ez da zentzuzkoa.

Alkateak bozkatzera deitzen du eta Mattari Plaza Zugarramurdik, Lekarozko alkateak, herriaren izenean aurkeztutako eskaera ikusirik, **Udalbatzak** kontrako 7 botorekin eta aldeko 6 botorekin erabaki du:

1.- Nafarroako Gobernuari 373E/2017 Ebazpena bertan behera uzteko aurreko errekerimendua ez egitea, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 44. artikuluan ezarritako moduan eta epean. Abuztuaren lehen Ingurumeneko eta Lurraldearen Antolamenduko zuzendari nagusiak emandako 373E/2017 Ebazpenaren bidez, eremuko Konpentsazio Batzordeak sustatutako Lekarozko Aroztegiko jauregiaren inguruko turismo, hotel, kirol eta egoitza eremuaren Udalez gaindiko Plan Sektorialeko AR-1eko Birzatiketa Proiektua behin betiko onetsi zen.

2.- Akordio hau interesatuei helaraztea, jakinaren gainean izateko eta ondorioetarako.

5.- LUIS MIGUEL MORTALENA SALDIASEK AURKEZTUTAKO 17-01390 GORA JOTZEKO HELEGITEA.

Alkateak saio honetako espedientean dagoen 17-01390 zenbakiko gora jotzeko helegitean aurkeztutako alegazio-txostenaren edukiak azaldu ditu eta **Udalbatzak** aldeko 7 botorekin eta 6 abstentzioekin alegazio-txostena berretsi du.

Ruben Ciganda, Geroa Bai: Abstentzia bozkatu dute koherentziagatik, 2017ko

en el tema de la reclamación, como parece ser que en este caso no se contempla, en el próximo pleno yo presentaré o apoyaré una reclamación de la titularidad de la ermita.

Joseba Otondo, alcalde: *La ermita no es dudosa, se le ha dado a la otra parte y se crea una situación de facto. Ahora se trata de dos cosas al mismo tiempo; reclamar que se trata de una cosa dudosa y por otro lado defender la titularidad por vía civil. Defender sólo la titularidad se queda corto.*

Begoña Sanzberro, UPN: *Suscribo el argumento de Alejandro. Creemos que debe ir por la vía civil. El Gobierno de Navarra va a tener la misma posición y el fondo debe ser resuelto por vía civil.*

Joseba Otondo, alcalde: *Hay que acudir a la vía civil, sin duda, pero nuestra responsabilidad es hacerlo por esta otra vía, y cerrar la vía al requerimiento no es razonable.*

Alcaldía llama a votar y vista la solicitud de Mattari Plaza Zugarramurdi, alcalde del Pueblo de Lekaroz, el Pleno por 7 votos en contra y 6 a favor acuerda:

1.- *No realizar ante el Gobierno de Navarra requerimiento previo en la forma y plazo determinados en el artículo 44 de la Ley 29/1998, de 13 de julio, reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa, para que revoque la Resolución 373E/2017, de 1 de agosto, de la Directora General de Medio Ambiente y Ordenación del Territorio, por la que se aprueba definitivamente el Proyecto de Reparcelación del AR-1 del Plan Sectorial de Incidencia Supramunicipal del área turística, hotelera, deportiva y residencial del entorno del "Palacio de Arozteguia" en Lekaroz.*

2.- *Notificar el presente acuerdo a los interesados, para su conocimiento y efectos.*

5.- RECURSO DE ALZADA 17-01390, INTERPUESTO POR LUIS MIGUEL MORTALENA SALDIAS.

Alcaldía da a conocer el contenido del informe de alegaciones remitido al Tribunal Administrativo de Navarra en relación al recurso de alzada nº 17-01390, que queda adjunto al expediente de la presente sesión. El Pleno con 7 votos a favor y 6 abstenciones ratifica el informe de alegaciones.

Rubén Ciganda, Geroa Bai: *Votan abstención por coherencia con lo votado a la hora de aprobar*

aurrekontua eta plantilla organikoa onartzerakoan abstentzioa ere bozkatu zutelako.

6.- 2018KO BAZTANGO JAIEGUNA OFIZIALA. ALKATETZAKO PROPOSAMENA.

Alkatetzatik proposatu da Baztango tokiko besta eguna feria eguna izatea (San Lukasen ondorengo asteko ortzirala), 2018an urriaren 26an izango dena.

Udalbatzak proposamena aho batez onartu du. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari helaraziko zaio, jakinaren gainean izateko eta dagozkion ondorioetarako.

Aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 9:00etan alkate jaunak bilkura amaitutzat eman du eta nik, idazkariak horren guztiaren fede ematen dut.

presupuesto y plantilla orgánica de 2017, donde también se abstuvieron.



6.- DÍA DE FIESTA LOCAL DE BAZTAN PARA EL AÑO 2018. PROPUESTA DE ALCALDÍA.

Desde Alcaldía se propone establecer como fiesta local de Baztan el día de ferias (el viernes de la semana siguiente a San Lucas), que en 2018 será el 26 de octubre.

El Pleno por unanimidad admite la propuesta. Se comunicará el presente acuerdo al Gobierno de Navarra, para su conocimiento y efectos.

No habiendo más asuntos a tratar, a las 09:00 horas el señor alcalde levanta la sesión, de todo lo cual, como secretario, doy fe.

ALKATEA
EL ALCALDE



IDAZKARIA
EL SECRETARIO

